

Ari da betetzen bere hedapen planak, iragarria zuen erritmoan

EROSKIK 52 FRANKIZIA INAUGURATU ZITUEN 2020AN

- **7,8 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu, eta 312 lanpostu sorrarazi**
- **530 denden baino gehiagok osatzen dute EROSKIren frankizien sarea**
- **Iaz, EROSKIk eta AVIAk lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten *Rapid* erako supermerkatuak irekitzeko zerbitzuguneetan**
- **EROSKIk 5 urtebete ditu supermerkatu eredu inklusibo hori sustatzen gizarte ekonomia sozialeko entitateekin batera**

Elorrio, 2021eko martxoaren 1a.- **EROSKI**k 52 frankizia inauguratu ditu 2020an. Guztira, 7,8 milioi euro inbertitu ditu, eta 312 lanpostu sorrarazi. Hedapen horren bitartez eta denda propioen sarea eraldatzeko ekimenaren bitartez, bultzada indartsua hartu du EROSKIren belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituen Zurekin eredu komertzialak.

Autonomia erkidego hauetan egin ditu kooperatibak inaugurazio gehienak: Katalunia (9), Madril (8), Andaluzia (7), Balearrak (6), Nafarroa (5), Galizia (4) eta EAE eta Valentzia hiruna irekierarekin. Horien ondotik datoz, Aragoi, Gaztela eta Leon eta Errioxa bina irekierarekin eta, azkenik, Kantabria eta Gaztela-Mantxa frankizia hartzaile banarekin.

EROSKIk aurreko urteetako irekieren erritmoari eusten dio, eta, sei urte honetan, 340 inaugurazio egin ditu; hortaz, gaur egun, frankizia erako 500 supermerkatu baino gehiago ditu. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante. 2021eko ekitaldian, kooperatibaren asmoa da 70 bat frankizia baino gehiago inauguratzea.

EROSKIk supermerkatu formatu bat baino gehiago eskaintzen dizkie hartzaileei, eta egokituta dago negozioa ezarri nahi duten lekuko biztanleriara. "*Oso garrantzitsua da haztea, baina are garrantzitsuagoa sare osasuntsua eta sendoa izatea; horregatik, oso zorrotzak gara frankizia bihur litezkeen kokalekuak eta soslaiak hautatzeko orduan. EROSKIren frankiziek ezaugarri jakinak dituzte: hurbil-hurbilekoak dira, 150-400 metro koadro inguru dituzte, denda dagoen eskualdeko produktuak salgai jartzen dituzte, freskoen eta elikagaien sail handia izaten dute eta hurbileko eta konfiantzazko arreta ematen dute*", esan du EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak, Enrique Martinezek.

***Rapid* erako dendak zerbitzuguneetan**

EROSKIren frankizia erako formatu komertzialetan dagoen azken berrikuntza *Rapid* da, 2017an inauguratua. Komenentziako autozerbitzu bat da, ordutegi zabala duena,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
KRISTIAN PRIETO

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

hamabost ordu egunero zabalik (08:00-23:00), urteko 365 egunetan eta 150 metro koadro dituen. Metro koadroko dagoen eskaintza komertzialik zabalena dauka, 3.600 erreferentzia baino gehiagorekin. Horrela, kontsumitzailearen 800 bat premia estaltzen ditu. *Rapid* frankizien sarea guztira 28 dendak osatzen dute, eta zerbitzuguneetan, hondartza aldean, unibertsitatean eta hirigunean daude kokatuta. Sarearen hedatzeko datozen planetan, honako lurralde hauek sartuko dira: Madril, Levanteko kostaldea, Andaluzia, Balear uharteak, EAE, Nafarroa eta Errioxa.

"Irekieren erritmoari eutsi diogu, nahiz eta pandemia dela medio baldintza berezietan ireki ditugun, eta 2021ean gure asmoa da beste 20 RAPID frankizia irekitzea. EROSKIk jarraitzen du apustu egiten merkatu aukera horren alde, zeinetan batzen baitira komenentzia eta arin, erraz eta bulkadaz erosteko ohitura", adierazi du EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak.

Iaz lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten EROSKIk eta AVIAK, petrolio operadoreak *RAPID* erako supermerkatu gehiago irekitzeko Espainian dituen zerbitzuguneetan. Orain arte, *Rapid* erako hamar EROSKI denda ireki dituzte AVIAren gasolindegietan. Oraingoz, dagoeneko irekita dauden dendek artean 2 EAEkoak dira, 2 Madrilgoak, 3 Errioxakoak, 2 Nafarroakoak eta 1 Valladolidekoa. 2021erako, gasolindegietan beste 15 denda irekitzeko plana dago egina.

Lankidetzak hitzarmenak

Kooperatibak eusten die Enpresaburu Gazteen Elkarteen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) dituen lankidetzak hitzarmenei, enpresari gazteen ekintzailak lagundu eta sustatzeko, eta akordio bat du ATArekin, hau da, Enpresarien eta Langile Autonomoen Elkarteen Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzailea indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

Merkataritza Frankiziarik Onenaren Saria

Orain berriki, EROSKIrena iruditu zaie kontsumitzaileei proposamenik onena *Frankizien* kategorian, [2020-2021eko Merkataritza Sariaren hamargarren ekitaldian](#); Espainiako kontsumitzaileen sariketarik handiena da, eta *retail*-aren sektorean egiten den merkatu azterketarik handienetako bat.

Bost urte ekonomia sozialean lagunduz

EROSKIk 5. urtea du supermerkatu eredu inklusibo hori sustatzen gizarte ekonomia sozialeko entitateekin batera. GUREAKEK sendotu egin du desgaitasunak dituztenak gizartean eta lan munduan integratzeko duen proiektua, eta bosgarren urtea balantze aski baikorrarekin ospatu du. Gaur egun, bost supermerkatu daude desgaitasunak dituztenek osoki kudeatua; bi Gasteizen eta beste bat Azpeitian. Bi entitateen arteko ekimen hau berrikuntza sozialaren proiektu bat da, eta aukera berriak irekitzen ditu desgaitasunak dituztenak gizarteratzeko; gainera, publikoarekin harreman zuzena

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
KRISTIAN PRIETO

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA. G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



izanez, beren gaitasunen eta trebetasunen aniztasuna gizartean normalizatzen laguntzen du.

EAEko hiru dendez gain, EROSKI beste bi lurraldetara hedatu du supermerkatu inklusiboaren eredua; Kataluniara, 2 CAPRABO denda irekita AMPANSen lankidetzarekin, eta Galiziara, zeinetan denda bat baitu SOLTRArekin. EROSKI aukera aztertzen ari da esperientzia hori beste lurralde batzuetara zabaltzeko, asmo sozialak dituzten beste erakunde batzuekin kolaboratuta. *"Egiztatuta dago ereduak arrakasta duela arlo guztietan, batik bat arlo sozialean, baina baita ekonomikoan ere. Aberastasuna eta enplegua sorrarazten ari gara gure ingurunean"*, esan du Martinezek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
KRISTIAN PRIETO

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA. G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)